



# TERRORISMOAREN AURKAKO AZAL IKUSEZINA

BALIO ETIKOETARAKO  
UNITATE DIDAKTIKOA

**DBH 1**



**"OROIMENA ETA TERRORISMOAREN  
PREBENTZIOA" HEZKUNTZA-  
PROIEKTUA.**

**3. UNITATE DIDAKTIKOA**

**ARGITARATZAILEAK**

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko  
Zuzendaritza Nagusia. Barne Ministerioa

Ebaluaziorako eta Lurralde Lankidetzarako  
Zuzendaritza Nagusia. Hezkuntza eta  
Lanbide Heziketako Ministerioa

Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako  
Zentroa

Fundación Víctimas del Terrorismo

**TESTUAK**

Ricardo Arana Mariscal

**DISEINUA**

Dr. Drumen

**ARGAZKIAK**

Archivo Municipal de Bilbao -  
Bilboko Udal Artxiboa

Espainiako Abokatutzaren Kontseilu  
Nagusia

EFE

La Sexta

Pixabay

Barne Ministerioaren NIPOa:  
126-20-003-X

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako  
Ministerioaren NIPOa: 847-20-076-3

T O D O

I N D I V I D U O

T I E N E

D E R E C H O

A L A

V I D A ,

A L A

L I B E R T A D

Y A L A

S E G U R I D A D



# AURKIBIDEA

Gai honetan gizateriarentzat funtsezkoa den aurkikuntza bat landuko da. Gizakiek preziorik ez izatea eragiten duen zerbait. Pertsonak aldi berean beraiena eta guztiena den zerbait dutela deskubritzea: giza duintasuna. Duintasun hori ehuntzen duten elementuak erakutsiko dira, baita duintasun hori arriskuan jartzen dutenak ere, bereziki terrorismoa. Eta eraso hori hurbiletik jasan dutenei hurbilketa bat egingo zaie; horrela, hobeto hausnartu ahal izango da zer egin daitekeen edo zer egin behar den.

Giza eskubideei, terrorismoari eta honen biktimei buruzko proposamen didaktiko hau egiteko (funtsean, DBHko 1. mailako ikasleekin Balio Etikoen arloan egingo da, lan-saio batean edo bitan), indarrean dauden curriculum-jarraibideak eta hainbat gogoeta eta orientazio kontuan hartu dira. Lan honetan zehar honako hauek lortu nahi dira:

1. Giza duintasunaren kontzeptua, giza eskubideak eta haien garrantzia aztertzea.
2. Zuzeneko eta hurbileko urraketen lekukotasunen bidez, haien garrantzia ondorioztatzea.
3. Terrorismoak eragiten duen kaltea ebaluatzea, haren protagonismoa saihestuz.
4. Bidegabeko indarkeria gaitzesten laguntzea.
5. Biktimekiko enpatia eta elkartasuna sustatzea.
6. Ezagutzak hausnarketa autonomoa ekar dezan bultzatzea.
7. Jakintza kognitiboak prozedurazkoekin eta jarrerazkoekin konbinatzea.
8. Dinamika gogoetatsua, parte-hartzailea eta dialogikoa bilatzea.
9. Ikaskuntza aktiboa bultzatzea, egungo teknologiak erabiliz.
10. Hizkera erraza eta inklusiboa erabiltzea.

04

1. Saioa

08

2. Saioa

4

1.

# SAIOA





**1** 948an aparteko gertaera bat jazo zen. Abenduaren 10ean, Nazio Batuen Batzar Nagusian, 50 herrialde baino gehiagotako ordezkariak aurkikuntza handi bat ziurtatu zuten: gizakiek «azal ikusezin bat» dute, guztiak estaltzen dituen geruza bat.

Nazio Batuak zer diren eta nola sortu ziren jakiteko, honako webgunehonetan lor dezakezu informazioa: <https://www.un.org/es/about-un/index.html>

Herrialde horietako ordezkariak ez ziren konformatu denbora luzez pentsatzen eta eztabaidatzen ari zen zerbaiten iragarpentz hutsarekin; aitzitik, harago joan ziren, eta gutxienez 30 "elementu", 30 "zelula" zehaztu zituzten, mundu osoan eta uneoro pertsona guztiak bereizten eta babesten dituen "ehun ikusezin" hori osatzen dutenak. "Giza eskubideak" bezala dira ezagunak. Horiek guztiak sarritan "giza duintasun" gisa ere izendatzen den babes hori osatzen dute.

Posible da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean kontsultatzea: <https://www.un.org/es/universal-declaration-human-rights>



1. irudia. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren azala.

Hori jakiteko, terrorismoaren ondorioak azter daitezke, arrisku larria baita gizaki guztiek duten babes horrentzat.

Seguru asko, honezkero, badakigu terrorismoa zer den, hiztegian lehen definizio hori aurkitu ahal izan delako edo hartaz hitz egiten entzun delako. Terrorismoa pertsonen aurka beldurra sortzeko eta erabakiak baldintzatzeko erabiltzen den indarkeria ez-legitimo gisa defini daiteke, batez ere erabaki politikoak, hau da, gizartean gizakien antolamenduari eragiten diotenak. Horretarako, terrorismoak pertsona bat edo talde bat erasotzen du, fanatiko bihurtutako gizabanakoek burututako indarkeriazko ekintzen bidez; fanatiko horiek ez dituzte hurkoak halatzat ikusten, beren helburuak lortzeko tresna soil gisa baizik. Terrorismoa praktikatzan duten pertsonak uste dute beren ideia partikularrak beste ezeren gaineratik daudela.

Zabaldu nahi duen beldurraz gain, terrorismoa gorrotoaz baliatzen da "azal ikusezin" hori, giza duintasuna, urratu eta zulatzeko. Terroristei beren erasoak egin ahal izateko transmititutako gorrotoaz ez ezik, beren ekintzekin populazio baten barruan sortu nahi duten gorrotoaz ere ari gara.

Eta beldurraekin eta gorrotoarekin batera, terrorismoak axolagabekeria behar du. Terrorismoak zera nahi du, beldurragatik, gorrotoagatik edo axolagabekeriagatik, pertsonak ahaztu dezatela denek, salbuespenik gabe, babes bera izateko eskubidea dutela, denek dutela "azal" bera.

Izan ere, "babes ikusezinak", "giza duintasuna" deituriko azal horrek, oso ezaugarri berezia du: gainerako gizateria-rekin lotuta dago. Kultura guztietako pertsona guztiek "azal" bera partekatzen dute. Pertsona baten aurkako erasoaren aurrean ezer egin gabe geratuz gero, duintasuna bera ere ahuldu egiten da. Eta, aitzitik, biktima bat babestuz eta lagunduz, indartu egiten da.

ETA, Espainian heriotza gehien eragin dituen erakunde terroristak, 2018an iragarri zuen bere desegitea, baina atentatu terroristak izateko arriskuak bere horretan jarraitzen du, batez ere, terrorismo jihadistaren ondorioz, "erlijioa eta politika nahasten dituen terrorismo globala" baita.

2. irudia. Adela Cortina filosofoa Giza Eskubideen XX. sariaren ekitaldian. Abokatutzaren Urteko Konferentzia 2018-12-13.  
Argazkia: Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusia







3. irudia. Gazte batzuk atentatu jihadistak baten biktima bat kontsolatzen (Bartzelona, 2017/08/17). Argazkia: Armengou Miret, EFE.

## NOLA BABESTU EDO LAGUNDU DAITEKE EKINTZA TERRORISTA BATEKO BIKTIMA?

2017ko abuztuko irudi honek horri buruz hausnartzeko aukera ematen du. Bertan, hiru pertsona agertzen dira, Espainiako hiri batean atentatu jihadistak bat gertatu eta gutxira. Badakizu non eta noiz gertatu zen? Zer uste duzu gertatu zela?

Zer gertatu ote zitzaien aurpegia ezkutatzeko duen pertsonari? Eta zutik dagoen pertsonari? Hirugarren pertsona bat ere badago. Zer uste duzu giten ari dela? Zer iradokitzen dizu irudiak?

Begiratu ondo irudian agertzen den kioskoari. Hitz bat nabarmentzen da bere publizitatean. Zein da? Hitz horrek adierazten duenak zerikusirik izan al dezake zure hausnarketarekin?

Antzinako greziar filosofoek, hala nola Sokratesek edo Platonek, bidegabekia zen zerbait nahita egitea arbuiatzen zuten, baina bidegabekeria bat beste bidegabekeria batekin ez dela konpontzen ere adierazten zuten. Ados zaude ideia hori atentatu terroristen kasuan aplikatzearekin?

2.

SAIOA








4. irudia. José María Piris 13 urteko mutikoaren hileta San Vicente de Alcántaran (Badajoz). Azkoitian hil zen, ETaren bonba batek guardia zibil baten aurka eztanda egitean (1980/03/29). Argazkia: Europa Press, AMB-BUA.

**D**emokrazia sistema bat da, eta ez du soilik pertsonen portaera duina babesten, exijitu ere egiten du, María Zambrano filosofo espainiarrak gogora ekartzen zuen bezala. Horregatik, pertsonaren duintasuna gure bizikidetzara arautzeko balio duten arau juridikoetan presente dago. Gizadiaren "azal ikusezin" hori Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikuluan agertzen da, I. Tituluaren barruan, oinarritzko eskubide eta betebeharrei buruzkoan, giza duintasuna ordena politiko eta sozialaren oinarri gisa hartuta.

Testu konstituzionaleko artikulua hori modu errazean bila dezakezu: Interneteko zure bilatzaile gogokoenean tekleatu "constitución española" terminoa. Komenigarriena Estatuko Aldizkari Ofizialerako esteka aukeratzea da.



5. irudia. Espainiako Konstituzioaren azala.



Pertsonak aske dira erabakiak askatasunez har ditzaketelako. Bere duintasunaren funtsezko zati bat da. Horregatik, hartu nahi ez dituzten erabakiak hartzeko izutzen saiatzen direnean, haien duintasunari eraso egiten diote. Erraza badirudi ere, sarritan zaila da pertsona guztiek duten "azal ikusezin" hori mehatxatzen duten arriskuak ulertzea, eraso larriak jasaten dituen, hala nola terrorismoa.

Atentatu terroristek eragin zuzena eta izugarria dute pertsonen bizitzan, haien biktima direnean, nahiz eta heriotzarik edo zauri larririk ez izan. Are gehiago, eragiten duten kaltea ez da mugatzen zuzeneko biktimen kopurura ere.



**Kasu zehatz bat ikus daiteke telebistako erreportaje honetan. Interneteko bilatzaile batean tekleatuz gero, protagonistetako baten izena, Irene Villa, eta saioaren izenburua, komatxo arteen jarrita biak, aurki daitezke ¿Dónde estabas entonces? Bertan atentatu terrorista oso larri baten biktima batzuk agertzen dira.**

*6. irudia. Suhiltzaile talde bat Madrilgo Barajas aireportuko T4 terminaleko aparkalekuko hondakinak ikuskatzen ari da, ETaren bonba batek suntsituta, desagertutako bi pertsonen bila (2007/01/02). Argazkia: Alberto Martín, EFE.*



## ONDORENGO GALDERA HAUEK ERREPORTAJE HONI BURUZKO HAUSNARKETA ERRAZTEN DUTE:

Erreportajearen agertzen diren pertsona guztietatik, Irene, M<sup>a</sup> Jesús eta Virginia, nor edo nortzuk hartuak izan behar dira terrorismoaren biktimatzat eta zergatik?

Zein ondorio utzi zizkien atentatuak? Ezberdindu elkarrizketatutako pertsona bakoitzaren galerak.



Begiratu M<sup>a</sup> Jesús-en esaldi honi: "Guztien artean kaltetuena Virginia izan da". Zergatik dio hori?

Begira beste esaldi honi: "Hori (bonba bat) jende garrantzitsuari jartzen diote". Egia islatzen duela uste duzu?

"Ezintasunik handiena ez da protesi bat eramatea, gorrotoa eta aiherra baizik" esan ohi du Irene Villak bere egoeraz galdetzen diotenean. Ideia hori partekatzen duzu?

Bai Irenek bai M<sup>a</sup> Jesús-ek umorez hartzen dituzte haiei buruz egiten diren txisteak. Virginiak ez du berdin ikusten: "Niri, berak esaten badit, grazia handia egiten dit, baina beste batek esaten badit...". Zer deritzozu? Atentatu terroristen biktimei buruzko txisteak egingo zenituzke?

**GIZAKIEK DUTEN "AZAL IKUSEZINAK" NOLA FUNTZIONATZEN DUEN AZTERTU DUZU, HAIEN BIZITZETARAKO ZEIN GARRANTZITSUA DEN, ETA JASAN DITZAKETEN ERASO BATZUEN BERRI ERE IZAN DUZU. IDATZI, ONDORIO GISA, ZER EGIN DEZAKEZUN HURA ZAINDU ETA BABESTEKO (GOGORATU AZAL HORI PERTSONA GUZTIEK PARTEKATZEN DUTELA), ETA ZER EZ ZENUKE EGIN BEHARKO, EDO, GUTXIENEZ, ZER SAIHESTU BEHARKO ZENUKE.**





BALIO ETIKOETARAKO  
UNITATE DIDAKTIKOA

**DBH 1**

